EBAZPENA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARRAK BETETZEKO LAN-POLTSAK OSATZEN DITUZTEN PERTSONEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA BAREMATUAK ARGITARATZEN DITUENA, LAN-POLTSAK IREKI ONDOREN.	**RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA, POR LA QUE SE HACEN PUBLICAS LAS RELACIONES PROVISIONALES BAREMADAS DE LAS PERSONAS INTEGRANTES DE LAS BOLSAS DE TRABAJO PARA LA COBERTURA DE NECESIDADES TEMPORALES DE PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, TRAS LA APERTURA DE LAS BOLSAS DE TRABAJO.**
Justizia Administrazioko zuzendariaren 2024ko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko langileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsak ireki ziren.	Por Resolución de 7 de octubre de 2024, de la Directora de la Administración de Justicia, se procedió a la apertura de las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales del personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2025eko martxoaren 13an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden aldi baterako langileen beharrak betetzeko lan-poltsetan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartu zen.	En fecha 13 de marzo de 2025, se aprueba la relación definitiva de personal admitido y excluido a las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales del personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Lan poltsetan onartutako aipatutako pertsonak sartu ondoren, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak ofizioz barematu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren lan-poltsak osatzen dituzten pertsona guztien merezimenduak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko uztailaren 11ko Aginduaren 12. artikuluan ezarritako merezimenduen arabera. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura	Una vez incluidas las citadas personas admitidas en las bolsas de trabajo, se ha baremado de oficio, por parte de la Dirección de la Administración de Justicia, los méritos de todas las personas integrantes de las bolsas de trabajo de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a los méritos establecidos en el artículo 12 de la Orden de 11 de julio de 2022, de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, por la que se aprobó la normativa sobre gestión de listas de

dauden aldi baterako langile-beharrak estaltzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko araudia onartu zen.	personas candidatas para la cobertura de necesidades temporales de personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Egindako zerbitzuei dagozkien merezimenduak 2024ko azaroaren 18ra arte zenbatu dira (eskabideak aurkezteko azken eguna).	Los méritos relativos a servicios prestados se han computado hasta el 18 de noviembre de 2024 (fecha fin de presentación de solicitudes).
Horregatik guztiagatik,	Por todo ello,
EBAZTEN DUT	**RESUELVO**
Lehenengoa.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsak osatzen dituztenen behin-behineko zerrenda baremotuak, hautagaiaren Enplegu Publikoaren atarian argitaratuta egongo direnak.	**Primero.-** Aprobar las relaciones provisionales baremadas de las personas integrantes de las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales de personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que estaran publicadas en el portal de Empleo Público de la persona candidata.
Bigarrena.- Baremotutako behin-behineko zerrenden aurka, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, behar bezala dokumentatuta, 2025eko martxoaren 18tik 2025eko martxoaren 31era bitarteko epean, biak barne. Erreklamazioa aurkezteko, horretarako prestatutako inprimaki elektronikoa erabili beharko da, helbide honetan eskuragarri egongo dena: http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1091009	**Segundo.-** Contra las relaciones provisionales baremadas cabrá formular reclamaciones, debidamente documentadas, en su caso, en el plazo comprendido entre el 18 de marzo de 2025 y el 31 de marzo de 2025, ambos incluidos. Para presentar reclamación deberá utilizarse el formulario electrónico elaborado al efecto, que estará disponible en http://www.euskadi.eus/servicios/1091009

Vitoria-Gasteiz, sinadura digitalaren egunean/ a fecha de la firma digital

María Dolores Movilla Rivas
Justizia Administrazioko Zuzendaria
Directora de la Administración de Justicia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS

Fecha: 2025.03.14 12:30:31 +01'00'

Maria Dolores Movilla Rivas
Justizia Administrazioko zuzendaria
Directora de la Administración De Justicia